



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Gure kontra ez dagoena, gure alde dago”

2024ko irailaren 29a
Urteko 26. igandea (B)

Markos 9, 38-43. 45. 47-48.

Joanek esan zion: -Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta eragotzi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa.

Baina Jesusek erantzun: -Ez eragotzi; ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki-esaka jardungo duenik. Hau da, gure kontra ez dagoena, gure alde dago. Benetan diotsuet: Mesiasen jarraitzaile zaretelako, ontzixka bat ur bada ere ematen dizuen inor ez da saririk gabe geldituko.

“Sinesten duten txiki hauekoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak, hobe luke errotarri bat leptik lotu eta itsasora amilduko balute. Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizitzan sartu, bi eskuekin infernura, itzalezineko sutara, erori baino.

Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hankamotz betiko bizitzan sartu, bi oinekin infernura jaurtikia izan baino.

Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atera; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiekin infernura jaurtikia izan baino; han ez da barruko harra hiltzen, ez eta sua itzaltzen.

“Ez eragotzi; ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki-esaka jardungo duenik.
Hau da, gure kontra ez dagoena, gure alde dago.”

INORK EZ DU JESUSEN ESKLUSIBARIK

Jose Antonio Pagola

Harrigarria da pasadizoa. Problema batekin hurbildu zaizkio ikasleak Jesusi. Oraingoan, ez da Pedro taldearen bozemailea, baizik Joan, lehen postuen bila dabilzan bi anaietarik bat. Oraingo honetan, Jesusen eskusiba eta haren egintza askatzailearen monopolioa ikasleen taldeak izan ditzan nahi du.

Kezka hau dute. Exorzista bat, taldekoa ez dena, deabruak botatzen ari da Jesusen izenean. Ikasleak ez dira pozten jendea sendaturik ikusteaz eta gizatasun handiagoko bizitza egin ahal izateaz. Soilik, beren taldearen izen handia dute gogoan. Horregatik, errotik moztu nahi izan dute exorzista haren jardura. Hau dute arrazoi bakarra: «ez da gutakoa».

Ikasleak jakindakotzat eman dute hau: Jesusen izenean eta haren indar sendatzaileaz jardun ahal izateko, beren taldekoa izan behar du. Ezin aipa dezake inork ere Jesusen izena, ezta mundua gizatasun handiagokoa egiteko lan egin ere, Elizako kide izan gabe. Horrela ote egiaz? Zer dio Jesusek?

Biribilki erantzun die Jesusek: «Ez iezaiozue eragotzi». Jesusen Izena eta indar gizatargaria garrantzikoagoak dira ikasleen talde koxkorra baino. On da Jesusek dakarren salbazioa zabaltzea eraikitako Eliza baino harago, eta jendeari gizatasun handiagokoz bizitzen laguntzea. Jokabide hori ez litzateke hartu behar sekula kompetentzia desleialtzat.

Bere jarraitzaileen artean hautsi egin nahi luke Jesusek tentazio sektario oro. Ez du eratu bere taldea mesiastar salbazio kontrolatzeko. Jesus ez da eskola itxi bateko lege-maisu, baizik guztiei eskainia den salbazioaren Profeta. On egiteko hots egina den toki guztietan sostengatu behar du Elizak haren Izena.

Jesusek ez du nahi bere jarraitzaileek hitz egin dezaten gureez eta gure ez direnez, barnekoez eta kanpokoez, bere izenean jardun dezaketenez eta ez dezaketenez. Beste bat du bere ikusmoldea: «Gure kontra ez dagoena, gure alde dago».

Gizarte modernoan gizon-emakume asko ari da mundua zuzenago eta gizatarrago egin nahiz, Elizako kide izan gabe. Batzuk ez dira fededun ere, baina Jainkoaren erreinuari eta haren zuzenbideari bideak irekin ari zaizkie. Gutakoak dira. Maitasuna behar diegu agertu, errezeloz begiratu orde. Sostengua behar diegu eskaini, deskalifikatu orde.

Oker handia da Elizan bizitzea, alde guztietan etsaigoa eta gaiztakeria ikusiz; pentsatuz, gizagaixo baten moduan, gu geu bakarrik garela Jesusen Espirituaren eramaile. Jesusek ez liguke horrelakorik onetsiko. *Aitzitik, ebanjelioaren arabera bizi eta pobreez eta premia handiagokoa dutenez kezkatzen direnekin lankide izatera gonbidatuko gintuzke.*